



2003/01/08ko prentsa-oharra


ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA (EKI)2002ko azaroa

ERAIKUNTZAREN KOSTUAK % 0,2 JAITSI ZIREN 2002KO AZAROAN

Datu horiekin, urte arteko hazkunde-tasa (2002ko azaroa, 2001eko azaroarekin alderatuta) % 2,6koa izan da.

2002ko azaroan, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indize Orokorra % 0,2 jaitsi zen, Eustaten datuen arabera. Urte arteko aldakuntzari (2002ko azaroa, 2001eko azaroaren aldean) begiratuz gero, % 2,6koa izan da kostuen goratzea; aurreko abenduaren aldean ere, hori bera izan da hazkundera.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1994-2002



(*) Gehikuntza eskainia azaroko urte artekoa da.

Iturria: EUSTAT

Azaroan, lehengaien kostuak % 0,3 jaitsi ziren, eta lan-eskuaren kostuak, oster, bere horretan iraun zuen. Hala ere, urte arteko aldian, lan-eskuaren kostuak % 4,0ko igoera izan du; lehengaien kostuek, berriz, % 1,6koa.

Eraikinak eta *obra zibila* azpisektoreetako lehengaiek antzeko bilakaera izan dute azaroan. Bietan izan dira jaitsierak, neurri berekoak izan ez badira ere: *Eraikinak* azpisektoreko lehengaien kostuak % 0,2 jaitsi dira, eta *obra zibila* azpisektorekoak % 0,7. Hala ere, alde nabarmenagoak ageri dira urte arteko bilakaera aztertuz gero: 2001eko azaroaren gainean, % 1,4ko hazkunde-tasa du *eraikinak* azpisektoreak, eta % 2,3koa *obra zibila* azpisektoreak.

Sektoreak kontsumitutako lehengaien artetik, 2002ko azaroan, hauek izan dituzte prezio-igoerarik handienak: *energia elektrikoa* (% 1,9), *karea*, *igeltsua eta eskaiola* (% 1,0) eta *burdina eta altzairua* (% 0,4) arloek, besteak beste.

Prezioen urte arteko bilakaeran, igoera nabarmenenak kontsumitutako produktuen artean ageri dira: *petroliotik eratorriak* (% 8,0), *zementu artifizia* (% 7,1), *metalezko hodiak* (% 6,4) eta *makineria erabilirako osagarriak* (% 4,4).

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE / DATU AURRERAPENA				2002KO AZAROA
GOIBURUAK	INDIZEA Oin., 1995= 100	GEHIKUNTZAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	119,0	-0,2	2,6	2,6
ERAIKINAK	119,4	-0,1	2,4	2,5
OBRA ZIBILA	118,0	-0,4	3,0	3,1
LEHENGAIEN KOSTUA	113,3	-0,3	1,6	1,8
ERAIKINAK	113,9	-0,2	1,4	1,5
OBRA ZIBILA	111,8	-0,7	2,3	2,6
LAN-ESKUAREN KOSTUA	128,4	0,0	4,0	4,0

Argibide gehiagorako:

 Eustat	Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
	Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz
	Tel.: 945 017 500. Faxa: 945 017 501. E-maila: eustat@eustat.es
	Harremanetarako pertsona: Enrique Morales Zubizarreta
	Tel.: 945 017 505. Faxa: 945 017 501
	Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es